

EHU-IKASLE ASEGURUA

JARDUTEKO PROTOKOLOA ISTRIPURIK EGONEZ GERO

Polizaren datuak:

- Poliza zenbakia: **94181807**
- Hartzailea: **Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea**
- Aseguratzaila: **Zurich Insurance plc**
- Aseguratua: **UPV/EHUn 2017/2018 akademi ikasturtean matrikulatutako ikasleak**

Zer egin behar du ikasleak istripua gertatuz gero eta osasun laguntzarik behar izanez gero?

1. Ikasleak konpainia aseguratzaila itundutako gunetako batera joan beharko du, ondoren zehaztutakoren batera:

ITUNDUTAKO GUNEA	PROBINTZIA	HELBIDEA	TELEFONOA
QUIRÓN BILBAO	BIZKAIA	BILBO	976 09 81 20
QUIRÓN DONOSTIA OSPITALEA	GIPUZKOA	DONOSTIA	976 09 81 20
POLICLÍNICA DONOSTIA	GIPUZKOA	DONOSTIA	976 09 81 20
LA ESPERANZA (QUIRÓN) OSPITALEA	ARABA	GASTEIZ	976 09 81 20

2. Osasun laguntza bizi larrialdizkoa balitz eta itundutako guneak istripua gertatu den tokitik urrun baleude, aseguraturakoak osasun gune gertuenean jaso ahal izango du laguntza.
3. Itundutako osasun gune batean egonik, aseguratuak identifikatu beharko du bere burua **UPV/EHUko unibertsitate txartela eta NAN edo antzeko agiririk** agertuz, lehenengoa eskura izan ezean.
4. Gomendagarria da aseguratuak **istripu aitortpena** eramatea berarekin, berau www.ehu.eus. Aitortpena sinatu eta zigilatu behar du ikasleari dagokion ikastegiko dekanok edo zuzendariak edo, hala balegokio, bere campuseko gerenteordeak. Ikasleak ezin izan badu istripu aitortpena agertu osasun gunera sartzerakoan, beranduen 72 ordutara agertu beharko du.

LARRIALDIRIK balego, nola jardun itundu gabeko guneetan?

Pertsona aseguratuak gune mediko gertuenean jaso ahal izango du arreta medikoa bizi larrialdietan. Hogeita lau ordu iraganik bizi larrialdiarengatiko laguntza jaso ondoren, aseguratuak itundutako gune medikoren batera garraiatu beharko da, tratamendua bertan jasoko badu. Aseguratuak jakinarazi beharko du derrigor 24 orduren epean itundu gabeko gune batean dagoela.

Konpainiak itundu gabeko gune medikoan egonez gero konpainiak berak espresuki baimendu gabe, konpainiak ez du bere gain hartuko jasotako zerbitzuek eragindako fakturen ordainketa.

Probarik egin eta beste zerbitzu batzuk behar badira, nola jardun?

Ondoren zerrendatzen diren praktikak egin edo zerbitzuak lortu ahal izateko, konpainiak aldeztu aurretik emaniko baimena eskuratu beharko da:

- Diagnosirako probak (TAC, RMN, ECO, Artroskopiak, Gamma grafiak eta abar).
- Ebakuntza kirurgikoak.
- Errehabilitazio saioak.
- Garraioak (anbulantzia, taxi eta abar).

Baimen hauen eskatzeko, honako hauetara jo behar da:

Helbide elektronikoa: siniestrosgcsmadrid@zurich.com

Telefonia: 91 714 62 32, 91 714 62 22 eta 91 714 62 35.

Nola aritu osasun laguntzaz besteko edozein istripu tramitatzeko?

Polizan estalitako beste edozein istripu (heriotza edo istripuek eragindako ezintasun iraunkorra, eskolak edo matrikula galtzea edo zoritxar familiarra) tramitatzeko, harremanetarako honako pertsona honi jakinarazi behar zaizkio:

Harremanetarako pertsona: Rubén Marcos Marín

Helbide elektronikoa: ruben.marcos@aoncsc.es

Telefonia: 94 425 15 00